

## **SARRERA/IDEIA:**

Vanessa, Irati, Nahia eta Txomin etxean korrika egiteko makina baten egileak gara. Proiektu hau diseinatzea erabaki dugu, kirola egiten duten bezeroei eta kirola egiten hasten ari diren bezeroei bideratuta dagoena, bai eta kirol entitateei. Gure bulegoa Donostian kokatu dugu, kirola asko sustatzen duen hiria iruditzen zaigulako eta urtero turista askoren bisita izaten duelako. Horrela, uste dugu gure negozioa aurrera ateratzea erraza izango dela. Gure diseinua ideia ona iruditu zaigu uste dugulako kirola egitea oso garrantzitsua dela, baina baita erosotasuna eta etxe barruko irudia zaintzea ere.

